

altza


Gazteen aisia eta heziketa

azaroan berriro ireki dituzte ateak Altzako Gazte-Lekuak. Aurten, bertako lana, kale hezitzaileek bideratuko dute, beraz, Maribel, Marije eta German izango dira hemendik aurrera kale hezitzaile modura aritzeaz gain, Gazte Lekuaren kudeaketaz arduratuko direnak.

Gazteon esanetan, «*bi lanak ondo bereiztu behar dira, kale hezitzaileek errekurso gutxi eta arazo ugari dituztenekin lan egiten dute eta Gazte Lekuko ekintzak gazte ororentzat izaten dira*».

Kale hezitzaileak, Udaltxeko Altzako egoitzan izango dira, astearte eta ostegunetan 10.00etatik 13.00etara. Gazte Lekuan berriz, astelehenetik ostiralera 17.00etatik 20.30etara izango dira. Bertan bilera lekuak izango dute gazteek jokoak, irakurketa eta abar lantzeko.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Gizarte honetan gazteak bizitzeko beharrezko diren jokaeretara bideratzea da beren helburu nagusia.

martutene

Ikastaroak auzokideentzat

auzokide guztientzat bi ikastaro antolatu dira Martutenen: kitarra ikastaroa bata eta eskulanena bestea.

Eskulanena, urriaren 15ean hasi zen eta Auzo Elkartearen lokalean izaten da asteartetan 15.00etatik 17.00etara. Ekainaren 15ean bukatuko da ikastaroa eta

parte hartu nahi izanez gero izena Loiolako Kultur Etxean eman behar da. Prezioa 15.000 pezetakoa da, langabetuentzat, 11.250 pezetakoa.

Kitarra ikastaroa berriz, abenduaren 4an hasiko da eta Gazte Lekuan izango da. Asteazkenero 18.00etatik

20.00etara emango ditu klaseak Jose Goenaga irakasleak. Ikastaroa ekainaren 11ean amaituko da. Izena Gazte Lekuan eman behar da, bazkideek 7.000 pezeta ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek 9.000.

ELI BETELU (TFNOA.: 467691)

Eiger

EDARITEGIA

General Jauregi 6 • PARTE ZAHARRA • DONOSTIA



ERREZILGO AZOKA


Errezilen II. Errezil Sagar Eguna

Anima
zaitez!Eguna: abenduaren 8an
Ordua: 10.30etatik 14.30etaraBertan aurkituko dituzue Errezil Sagar
eta sagarkirik goxoenak.

LAXOA liburudenda

- LIBURUDENDA
- FOTOKOPIAK
- PAPERDENDA
- FAXA
- OPARIAK
- AZALEZTATZEA

Altza pasealekua 55, behea • Tfnoa.: 35 30 94 • ALTZA



Casa de Flores

1930ean sortua

Jostura eta tapizeriak

Artile eta hari-kontuetan etxerik hoberenak

Elkano, 5 Tfnoa: 42 02 05 Donostia